

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

#### Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

#### **Aldaiako 5. sektoreko RU.01 lursailaren xedapen-azterketaren lehen aldakuntzari hasierako onespina ematea**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urtarrilaren 31n egindako ohiko bilkuran:

1. Creative Home SL eta Ali Siglo XXI<sup>a</sup> aurkeztutako Gasteizko Aldaiako 5. sektoreko RU.01 lursailaren xedapen-azterketaren lehen aldakuntzari hasierako onespina ematea, 2019ko urriaren 7an erregistratutako proiektuaren arabera.

2. Aldakuntzaren inguruko dokumentazioa jendaurrean jartzea eta horren berri ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz ematea, edozein entitate edo interesdunek dokumentazio hori aztertu eta egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan, hilabeteko epean.

Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - beheko solairua — egongo da ikusgai dosierra, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 31n

*Alkate lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**